

#EHBizi | Lesakako Ernai

Gazteok Bortzirietan era duinean lan, ikasi eta bizi nahi dugu!

Bortzirietako karrika eta ostatuetan barrena kolore gorriko kartelak jarri ditugu azken hilabeteotan Ernaiko kideok. Horietan, bertzeak bertze, lan kontratuak ez errespetatzea, Espainiak ezarritako guttieneko soldata miserablea, lan egiteko Bortzirietatik alde egin behar izatea eta Nafarroako langabezia tasa handia salatu ditugu, bertzeak bertze.

Izan ere, ez da erraza Euskal Herriko eta Bortzirietako gazteok bizi dugun egoera. Espainiar estatuak eta kapitalismoak egiten diguten eskaintza bakarra prekarietatea da: soldata apalak, ustez gazteak kontratatzeke aitzakiapean egindako “praktiketako” zabor kontratuak (edo batzuetan, kontraturik eza), ezegonkortasuna, langabezia...

Hiri handien aldeko politika zentralistek bultzaturik, gainera, herri ttikiak eta landa eremuak husten ari dira: Bortzirietako gazte anitzek ez dute lanik aurkitzen eskualdean, eta herritik kanpora joan behar izaten dute lanera. Horren ondorioz, gazte ugari bizitzera ere herritik kanpora joaten dira: herria gaztez husten ari da, beraz.

Hemen lanean gaudenen lan egoera ere ez da ona, anitzetan: industria pisua galtzen ari da, eta gazte gutti kontratatzen dituzte, edo aldi baterako zein praktiketako kontratuekin. Zerbitzuekin lotutako lanak, berriz, prekarioagoak izaten dira maiz (ostalaritza, bentak...).

Gazteak eta esperientziarik gabeak garen aitzakiapean, izan ere, lan esplotazioa eta neurri prekarioak errazago ezartzen dizkigute gazteoi, eta, gainera, lana edukitzea “zortea” izanen balitz bezala saltzen digute. Baina guk badakigu hau ez dela trantsizio egoera bat: prekarietatea gelditzeko etorri dela.

Lanean bizi dugun prekarietateak, gainera, bertzelako arloetan ere ezin garatu ahal izatea ekartzen digu: emantzipatzeko zailtasunak, bitzita ezegonkorak, harremanen prekarizazioa...

Horren aitzinean antolatzeke eta borrokatzeke deia luzatu nahi diegu eskualdeko gazteei, gure lan eskubideen alde eta Euskal Herrian zein Bortzirietan era duinean lan egin, ikasi eta bizi ahal izateke. Horretarako lehendabiziko urratsa kontzientzia hartzea denez, lan eskubideei buruzko tailer bat antolatu dugu eskualdeko LAB sindikatuarekin batera.

Noiz: **Urtarrilaren 3an, ortzeguna, 18:00etan.**

Non: **Berako Espidobaita elkartean.**

Tailerra praktikoa izanen da, eta, beraz, zuen zalantzak eta galderak ekartzera animatzen zaituztegu, elkarrekin gure lan eskubideak defenda ditzagun!

GAZTEON ORAINA BORROKAN DA!

#EHBizi